

# PACHIKU TA PELLO

**S**EGURA-ko baserri batian jayauak, gazterik Amerikara juan, lana gogotik egin eta diru naikua irabazi ondorian, bihurturik Euskalerrira, Donostiyan bizitzen gelditu ziran.

Bi anayak, zergatik anayak ziran burutik oñetaraño, eta mutil-zarrak oñetatik bururaño, emen ikusten dira jo ta tira batetik bestera, zer egin ez balekite edo bizitzez aspertuak baleude bezela.

Ostatuz dauden echera etortzen da alargun berritzu, koipe jariyo bat, iturriya baño geyako isiltzen ez dana, mundu guztiya eskonduko lukena (berari nonbait etzizayon damutu) eta saltza oyetan ez badabill bizi ezin dana.

Bi anayakin izketa batzubek egin ondorian, eraso ziyoten, gaizki zeudela sasoi artako gizonak andrerik gabe, eta eskondu egin biar zutela.

—Ez det esaten oraingo neska mukizu, chima arro, kanabelen antzeko gorputz medar, oñez ezin ibilli diran oyetako batekin; baña emakume errespetoko bat artzia biar biarrekua dezute. Emen aurrian esagutzen det emakume bat ona, elizakoya, echekoya ja zer emaztia zubetako batentzat!

Lenbiziko egunetan etziyoten gure segurarrak kasorik egiten, baña, ziyo ta ziyo alarguna, esagutu zubez anai batek bestiari far irriyan begiratzen zijola. ¿Alkarren bildur ote ziran?

.....

Egun batian oitu baño goisiago jeiki zan anai bat, eta bestiak oju egiñ ziyen:

—¿Nora ua ordu ontan?

—Mutill: alargun sorgiñ orrek buru guziya nastutu ziak, eta aurreko emakume orrekin eskontzera niak..... baña ni badek uai, bada bat edo bestia izan, berdin dek.

Era au esan etaoyian sartu zan berriro.

A. DARRÁ